

Pasaian aste honetan gertatutako eraso matxistari erantzunez

Udalerrian gertatu berri den eraso matxista gogor arbuia eta gaitzetsi nahi du Pasaia Udalak, eta horrekin batera, biktimari eta ingurukoei babesa, laguntzeko prestasuna eta gertutasuna agertu nahi dizkie. Halaber, Udalak eskura jarriko dizkio biktimari beharrezkoak dituen informazio-iturriak eta gizarte arloko udal baliabideak, errekuperazioaren eta erreparazioaren prozesuan lagun egitearren.

Emakumeen aurkako indarkeria egiturazko arazo baten ondorioa da eta gertakari horrek berriro ere agerian utzi du jendarte parekidea eraikitzeko gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak gaindu egin behar direla. Horretan ardura berezia dugu erakundeok.

Indarkeria matxista lehen mailako arazoa da. Emakumeen eguneroko ogia izateaz gain, jendarte osoaren larritasunezko arazoa ere bada. Arazo kolektiboa izan ere, eta hala den heinean, guztion ardura da horri aurre egitea.

Indarkeria matxista ez da gertaera isolatuen emaitza, jatorri estrukturala duen indarkeria baizik. Genero aurreiritzietan oinarritutako sozializazio baten ondorioz larriena eta muturrekoena da, izan ere haztegi moduko bat ere bada, gizarte-ordena errepika dadin, emakumeak desberdinkeria materialeko egoeretan mantentzeko, beren bizitzak bereziki prekarizatuz eta eragozpenak jarri emakumeak herritar gisa onartuak izan daitezen gizonetik berdintasunean, oinarritzkoenak diren eskubideak eragin korrak eginez.

En respuesta a la agresión machista ocurrida en Pasaia esta semana

El Ayuntamiento de Pasaia quiere mostrar su más enérgica repulsa por la reciente agresión machista ocurrida en el municipio, así como mostrar su apoyo, disposición y cercanía a la víctima y a su entorno. Asimismo, el Ayuntamiento pondrá a disposición de la víctima las fuentes de información y los recursos sociales municipales que precise para colaborar en el proceso de recuperación y reparación de la misma.

La violencia contra las mujeres es consecuencia de un problema estructural que ha vuelto a poner de manifiesto la necesidad de superar las relaciones de poder entre hombres y mujeres para construir una sociedad igualitaria. En esto tenemos especial responsabilidad las instituciones.

La violencia machista es un problema de primer orden. El pan de cada día de las mujeres. Un grave problema de toda la sociedad. Es un problema colectivo y, en la medida en que lo sea, es responsabilidad de todos y de todas afrontarlo.

La violencia machista no es el resultado de hechos aislados, es una violencia de origen estructural. Es la consecuencia más grave y extrema de una socialización basada en prejuicios de género, ya que constituye una especie de caldo de cultivo para que se repita el orden social, para mantener a las mujeres en situaciones de desigualdad material, precarizando especialmente sus vidas y poniendo obstáculos para que las mujeres sean reconocidas como ciudadanas en igualdad con los hombres, haciendo efectivos los derechos más básicos.

Horren aurrean, maskulinitate-eredu hegemonikoa eraldatu behar dugu. Era berean, ezinbestekoa da emakumeak ahalduntzea eta herritarren arteko babes-sareak sustatzeko neurriak martxan jartzea, bakardade sentazioari eta babesgabetasun egoerei aurre egiteko.

Pasaia Udalak konpromisoa hartu nahi du publikoki berdintasun politikak garatzen jarraitzeko eta ahalduntzearen bidean Berdintasun Mahaiarekin elkarlanean aritzeko, gure bizikidetzaren demokratikoaren oinarrien aurka doan gizarte-arazo bati erantzuna ematearren.

Amaitzeko, Pasaia herritarrei dei egin nahi diegu udalerrian gerta daitekeen edozein eraso matxistaren aurrean jarrera aktiboa har dezaten, horrelako gertakarien aurrean zero tolerantzia erakutsiz.

Frente a ello, debemos transformar el modelo hegemónico de masculinidad y es imprescindible poner en marcha medidas que fomenten el empoderamiento de las mujeres y las redes de protección entre la ciudadanía para hacer frente a la sensación de soledad y a las situaciones de desamparo.

El Ayuntamiento de Pasaia quiere comprometerse públicamente a seguir desarrollando las políticas de igualdad y a colaborar en la vía del empoderamiento con la Mesa de Igualdad para dar respuesta a un problema social que va en contra de las bases de nuestra convivencia democrática.

Para terminar, queremos hacer un llamamiento a la ciudadanía de Pasaia para que tomen una actitud activa ante cualquier agresión machista que pudiera suceder en el municipio mostrando tolerancia cero ante este tipo de hechos.

Pasaian, 2022ko uztailaren 29an